ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2026ko azaroak 6 · 1415 zenbakia

ETXEBIZITZA GUZTION ESKUBIDEA



BLACK FRIDAY
mó 77€
erreflexuen aurkako
betaurreko graduatua
mó 179€
erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboa
MULTIÓPTICAS
943 20 05 22
Bidebarrieta, 2.
EIBAR
hitzordua eskatu
Konsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.
www.multiopticas.com
B.S. 93/21

Itxoitera eseri, eta denborarik ez egunkaria zabaltze...

HEMEN DA TOPO BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo
Añorga eta Pasaia artean

Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info **topo.eus**

euskotren

etsenbide sarea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE



Eskatu zure saskia
eta eman **%25**
Nafarroa erdi
eta hegoaldeko
euskalgintzari



Saski beltza 60€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€



+ osagarria: **"euskararen haziak ereiten" egutegia** 10€

Jarrai iezaguzu!



Ezagutzen al duzue Goi Argi? 1951n sortu zenetik, emakumeen topagune eta ekimen askoren abiapuntu izan da Eibarren. 75 urteko ibilbidea, bizipenak eta herriko historiaren parte den ondarea ezagutzeko aukera izan du ...eta kitto!-k. Bideoa etakitto.eus-en dago ikusgai.

BIDEOAK YouTuben ikusgai

www.etakitto.eus

...eta kitto! euskara elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA
Naiara Esnaola
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINU ARLOA
Irune Jaio
JATORRIZKO DISEINUA
Maku Oruezabal
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Ander Fernandez
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Naia Aizpurua
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria

Eskutitzak

Eskola-berrantolaketa eta segregazioa Eibarren

Hezkuntza Saila aspalditik ari da Eibarko ikastetxeen berrantolaketa prestatzen. Antolaketa horren ondorioz, ikastetxeak bateratu, edo ikastetxeren bat itxi ere egin daiteke. Baina, oraingoz, usteak eta hipotesiak baino ez ditugu, hain gai sentikor eta garrantzitsuaren inguruan.

Prozesu honetan gardentasun falta nabarmena da. Orain arte, irakasleak, zerbitzuetako langileak eta familiak beren etorkizunari zuzenean eragiten dion erabaki-prozesutik kanpo utzi dituzte.

Martxoan, irakasleak eta familiak informazio-bileretara deitu gintuzten, baina, handik gutxira, Hezkuntza Sailak bertan behera laga zituen bilera horiek. Zazpi hilabete igaro dira ordutik, eta informazioaren zain jarraitzen dugu: zazpi hilabete azalpenik gabe, elkarrizketarik gabe eta hezkuntza-komunitatea osatzen dugunon parte-hartzerik gabe.

Eibarko eskola publikoak urteak daramatza eskola-segregazio nabarmen eta kezkagarri baten eraginpean, eta orain arte ez da hartu egoera horri buelta emateko neurri eraginkorrik.

2025eko urrian, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako diagnostikoaren arabera, segregazioa Euskadiko hezkuntza-sistemaren «egitura-erronka garrantzitsuenetako bat» zen. Diagnostiko horretan gainera, aitortzen zen «itunpeko sarearen zati batek jatorri migratzailea zuten ikasleen oso ehuneko txikiak eskolatzen jarraitzen zuela, eta horrek sistemaren polarizazio sozialari laguntzen diola».

Afera honek Eibarko zazpi ikastetxeei eragiten die, ez bost ikastetxe-publikoei soilik. Beste era batera esanda: zazpi bizilagunen batzarra deitzea bezalakoa litzateke, eraikina eraberritu nahi delako, baina bi bizilagun eztabaidatik kanpo utzita. Eta, ondoren, hartutako erabakia guztion arteko akordio gisa aurkeztu nahi izatea.

Eibarko eskola-berrantolaketa aukera paregabea izan daiteke desberdintasunak zuzentzeko, eskola publikoa indartzeko eta ikasle guztiei aukera-berdintasuna bermatzeko. Baina horretarako, segregazioari aurre egitea eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea bermatzea ezinbestekoak dira.

Elkarrizketa eta parte-hartzea ezin dira oztopo izan; aitzitik, eskola publiko hobea, bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko ezinbesteko giltzarriak dira.

Oskar San Martin
Eskola publikoko maisua

Gaztaiñerre ospatzeko gonbidapen irekia

Herritar agurgarriak:
AEK-ko C1eko ikasleak gara, eta zuengana jotzen dugu, azaroaren 16an Gaztaiñerre eguna gurekin ospatzera gonbidatu nahi zaituztegulako. Jaia arratsaldeko 19:00etan Xanian hasi, Kittotik pasa eta Terrazan bukatuko da trikitilariek girotutako kalejiran. Kopla berriak abesteaz gain, beste ekintza batzuk ere egingo ditugu; hala nola tabernetan gaztainak jateko aukera izango dugu, Terraza tabernak merienda goxoa jarriko digu, eta Errigorako otarreko produktuen zozketa egingo da. Eibartar guztiok gonbidatzen zaituztegu, aukera paregabea delako euskaraz hitz egiteko eta ondo pasatzeko.

AEK-ko C1eko ikasleak

Unbeko kirol instalakuntzen egoera

Nazkatuta gaude Unbeko egoeraz!
Urtebete baino gehiago daramagu dutxetako uraren tenperatura hotza jasaten. Ez da bidezkoa erabiltzaileak horrela tratatzea eta ezer ez egitea. Behin eta berriz kejaka gabiltza eta UDALETIK EZ DUTE EZER EGITEN, astero-astero arazo bera eta ez zaie inporta.

Lotsagarria da nola egiten dituzten gauzak,edo hobeto esanda, nola ez dituzten gauzak egiten. Entrenamenduak, partiduak jokatu eta aldagelara iritsi eta betiko sorpresa...ura izoztuta. Botoia sakatu,ura eta ura gastatu eta urak berdin jarraitzen du, hotza.

Lokatza,izerdia,blai eginda erropa jantzi,kotxea hartu eta etxera dutxa hartzera. Izoztuta eta sekulako haserrearekin.

BESTE BEHIN UDALETIK ADARRA JOTZEN ARI DIRELA PENTSATZEN DUGU. Nabaritzen da eurek ez dituztela jasaten euren lana ez egitearen ondorioak.

Unbeko erabiltzaile bat

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PURRUT. ➜ Uzkerra, ume hizkeran. "Han! purrut egin dozu?"
PURUAN. ➜ Ekinaren ekinez. “Biharraren eta lanaren puruan zerbait aurreratu eban”.
PUSKATU. ➜ Apurtu, hautsi, zati-zati egin. “Gauzak puskatzia, umien jolasik pozgarrixena”.

1959

La Eibarresa kooperatiba

Urte horretako azaroaren 26an egindako argazkian, *La Eibarresa* izena hartu zuen kooperatibako bi behargin ikusten dira, mostradore atzean, etxerako arropak eta bestelakoak saltzeko gertu.

FOTO PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 6
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ZAPATUA 7
EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

DOMEKA 8
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 9
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

MARTITZENA 10
EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)

EGUAZTENA 11
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

EGUENA 12
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

BARIXAKUA 13
EGUNEZ | Barandela (Ziriako Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Manuel Ortiz de Zarate Arzelus.** 91 urte. 2026-10-31.
- **Mª Teresa Areta Lezeta ("Bar Mendi").** 93 urte. 2026-11-01.
- **Balbina Aizpuru Odriozola.** 94 urte. 2026-11-03.



Noraka, Guiakom eta Zaintrack proiektuak saritu dituzte XIV. On Ekin lehiaketan

S.H. Urriaren 28an banatu zituzten XIV. *On Ekin* sariak Errebal Plazan, Ekingune elkarteak antolatutako ekitaldian. Guztira, 11 enpresa-proiektuk hartu zuten parte, eta 60 lagunetik gora bildu ziren. Lehen saria, 2.000 eurokoa, *Noraka* proiektuak eskuratu du. Richard McElroyk aurkeztutako soluzioak Microsoft 365 ingurunean enpresa-prozesuak automatizatzea du helburu. Aurten lehengoz eman den bigarren saria (1.500 euro) *Guiakom*-ek jaso du. David Merinoren proiektuak kableak iristeko zailak diren kanalizazioetan bideratzeko soluzio patentatua eskaintzen du. Eta publikoaren saria, 800 eurokoa, *Zaintrack*-ek jaso zuen, egoitzetako informazioaren erregistroa eta jarraipena digitalizatzeko sistemagatik. Amaieran, elkar ezagutzeko tartea egon zen.

Gizonen arteko konplizitatearen inguruan hausnartzeko saioa egingo da Arrate Kultur Elkartean

S.H. Azaroaren 13an, barixakua, gizonen arteko konplizitatearen inguruan hausnartzeko aukera egongo da Arrate Kultur Elkartean. Saioa 18:00etan hasiko da eta, bideo bat proiektatu ondoren, horren inguruko solasaldia egingo da. Gainera, pikoteoa jarriko dute.

Saioa gizonei zuzentzen zaie. Gizonen arteko konplizitatearena, mugimendu feministatik gizonei egiten zaien kritiketako bat dela adierazi dute, eta horregatik hartu dute horren inguruan hausnartzeko eta hitz egiteko erabakia.





Pilotari buruzko artikulu eta liburu ugari idatzi dituen Jose Agustin Larrañaga hil da

S.H. Urriaren 27an laga gintuen Jose Agustin Larrañaga Lejardik, 92 urterekin. Urteetan Eibar Rebistako kolaboratzailea izandakoak, pilotari buruz idatzi ohi zuen eta, aldizkari horretako erredakzio kontseilutik adierazi dutenez, "hain gurea den kirol modalitate horren inguruan, Eibarri dagokionez batez ere, Jose Agustinek bildu izan dituen tamainako daturik beste inon ez da izango. Lan horren fruitu ditugu Eibarko Txikito handiaren eta Miguel Gallastegiren inguruan berak burututako liburuak". Markina-Xemeingo semea, zestapuntan aritutakoa zen Larrañaga, eta modalitate horretan ibilitako hainbat pilotariren biografiak ere bereak dira.

Hortik aparte, Larrañaga Eibarko Artisten Elkarteko presidente ere izan zen, orain dela ez askora arte. Goian bego.



Eibarko saltokietako eskaintza erakusteko desfilea egingo da gaur iluntzean Errebalen

S.H. *Eibar Modan* moda-desfilearen laugarren edizioa egingo dute gaur (barixakua, azaroak 6), Errebalen. Ekitaldia 20:00etan hasiko da, eta herriko hogei saltoki baino gehiagoren proposamenak erakutsiko dituzte bertan, haurrentzako zein helduentzako arropa, osagarriak, optika, lentzeria, bainujantziak eta ile-apainketa barne.


Eibarko Dendarien Elkarteak antolatu du desfilea, Eibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Aurten, bost eta 80 urte bitarteko modeloek hartuko dute parte, eta, antolatzaileen arabera, adin guztietako herritarrak bilduko ditu desfileak. Modaz gain, herriko merkataritza eta tokiko sortzaileen lana erakustea da helburuetako bat: "Merkataritza, sormena eta pertsonak elkartzeko topagunea izango da". Herritar guztientzat zabalik egingo da, dena bete arte.

Eibarrera ailegatu berriei herrira moldatzen laguntzeko zerbitzua emango dute udaletxean

S.H. Eibarrera bizitzera etorri berriei harrera egin eta herrira moldatzen laguntzeko ekimena jarri du martxan Udalak, *Eibarren Bizi* estrategiaren barruan. *Harreragune* izeneko zerbitzuaren bidez, etorri-berriek hainbat gairi buruzko informazioa eta orientazioa jasoko dituzte, hala nola erroldatzeari, osasun-sistemari, hezkuntzari, enpleguari eta euskara zein gaztelania ikasteko aukerei buruz.

Zerbitzuaren helburua da herrira iristen direnei lehen harrera egitea, dituzten zalantzak argitzea eta behar dituzten baliabideak aurkitzen laguntzea.

Harreraguneak martitzenetan eskainiko du aurrez aurreko arreta, 09:30etik 14:00etara, Eibarko udaletxean . Immigrazio eta Kultur Aniztasuneko teknikariak emango du arreta, aurretik hitzordua eskatuta. Hitzordua eskatzeko, 943 708 440 telefono-zenbakira deitu edo 747 490 471 WhatsApp zenbakira idatzi daiteke.





Ostalariek 'Eibarren Irabazi' kanpaina jarriko dute martxan azaroaren 9tik 15era

S.H. Eibarko Ostalaritza Elkarteak, Udalaren laguntzarekin, *Eibarren Irabazi* sustapen-kanpaina abiatu du, tokiko ostalaritza dinamizatzeko eta herritarrak bertako taberna eta jatetxeak babestera animatzeko.

Azaroaren 9tik 15era bitartean, 41 establezimenduk hartuko dute parte ekimenean, eta bezeroen artean 400 txartel banatuko dituzte. Kontsumizio bat eskatzen dutenek txartel bat jasoko dute, eta zabaltzean jakingo dute sariduna den ala ez. Saria egokituz gero, doako kontsumizio bat (kafea, zuritoa edo ardoa) eskuratuko du bezeroak, establezimendu berean.

Txartel guztiak zigilatuta egongo dira, eta irabazleek saria egokitu den lokalean bertan erabili beharko dituzte.

Eibarko Ostalaritza Elkarteak eta kanpainarekin bat egin duten establezimenduek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte tabernetara gerturatzera, "bertako ostalaritza babestu eta saria lortzeko aukeraz gozatzera".



Saguzar-kutxak jartzeko irteera antolatu du Eibarko Baso Biziak plataformak

S.H. Eibarko Baso Biziak plataformak saguzarren babes-kutxak jartzeko irteera antolatu du azaroaren 15erako, domekarako. Parte-hartzaileak 10:00etan elkartuko dira Urkizuko parkean, eta handik Salbadorrera igoko dira, saguzarrentzako babeslekuak jartzeko. Eguerdiko 12:00etan, berriz, hamarretakoa egingo dute Salbadorren, plataformaren kontura.

Irteera Eibarko Udalaren eta Naturzaindia Kontserbazio Biologiaren Elkartearen laguntzarekin egingo dute. Hamar urtetik gorakoentzako jarduera izango da, eta parte-hartzaileei mendiko arropa eta oinetako egokiak eramatea gomendatu diete arduradunek.

EtxeGi ITURGINTZA
634 40 87 83
615 78 12 30
614 21 55 13
Pagaegi 1, erdisotoa
etxegi.iturgintza@gmail.com

ek!
Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
FUNERARIA MUGICA
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com
Eibar: Otaola, 27
Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

SORALUZE, **BLUESAREN ERRITMOAN**

Blues Hotsak jaialdiak zortzigarren edizioa ospatuko du azaroan, nazioarteko zein Euskal Herriko musikariak bilduko dituen egitarauarekin. Azaroaren 16tik 22ra, bluesak, soulak eta rock & rollak hartuko dituzte Soraluzeko kaleak eta agertokiak. Aurretik, Elgetan, Ermuan eta Eibarren egingo diren hiru kontzertuk girotuko dute jaialdia.
Musikarekiko lotura luzea du Soraluzek. 1980ko hamarkadatik, punk, rock, jazz eta blues kontzertu ugari antolatu dira herrian, baita musika beltzaren inguruko hainbat ziklo eta jaialdi ere Debabarrenean. Tradizio horren baitan sortu zen Blues Hotsak, urteekin herriko kultur egutegian bere lekua egin duen jaialdia.

JAIALDIA HASTEKO: Elgeta, Ermua eta Eibar

Dani Nel·lo + Organ Trio: saxofoiaren eta organoaren arteko elkarrizketa

Dani Nel·lo saxofoi-jotzaileak bi kontzertu eskainiko ditu: azaroaren 6an, Elgetako Ozkarbi kultura elkartean, 19:30ean; eta hilaren 7an, Ermuko Lobiano kulturgunean, 20:00etan. *Bric-à-Brac* diskoa aurkeztuko du Organ Trio taldearekin, rhythm & bluesa eta jazza uztartuz.



DANI NEL·LO MUSIKARI KATALUNIARRA

Lagunak Sessions: harmonikaren inguruko topaketa berezia

Azaroaren 13an, 19:00etan, Eibarko Coliseo antzokian aurkeztuko dute *Lagunak Sessions – Catalunya Harmonica Summit*. Greg Izorren gidaritzapean, Kataluniako blues eszenako musikariak elkartuko dira, Javier Laguna arrasatearra lagun dutela.

MUSIKA ETA LITERATURA ESKUTIK HELDUTA

Petti eta Ana Galarraga: Frankenstein, gaur egungo galderen aurrean

Azaroaren 19an, ostegunean, Pettik eta Ana Galarragak *Frankenstein agurgarria* ikuskizuna eskainiko dute Soraluzeko antzokian, 19:00etan.
Mary Shelleyren *Frankenstein* eleberrian oinarrituta, Victor Frankensteini zuzendutako gutun musikatu baten forma hartzen du proposamenak. Hitzak, kantuak eta ikus-entzunezkoak uztartuz, zientziaren mugak, gizakiaren erantzukizuna eta gaiztakeriaren jatorria bezalako gaiak lantzen dituzte bi sortzaileek. Duela bi mende baino gehiago idatzitako istorioa gaur egungo galderetara ekartzen duen emanaldia da.



ANA GALARRAGA ETA PETTI

ROCKAREN ETA BLUESAREN HISTORIAKO IZEN HANDIAK

Dr. Feelgood: britainiar pub rockaren aitzindariak

Azaroaren 20an, ostiralean, Dr. Feelgood talde britainiarrak hartuko du Soraluzeko antzokia, 19:00etan. Rockaren eta rhythm & bluesaren historiako talde ezagunenetako bat da.
1971n sortu zuten Lee Brilleaux abeslariak eta Wilko Johnson gitarristak. Zuzeneko indartsuengatik eta soinu zorrotzagatik egin ziren ezagun Erresuma Batuko pub eta areto txikietan. *Stupidity* zuzeneko diskoa eta *Roxette* abestia dira haien lan ezagunenetako batzuk. Urteen joanean taldekideak aldatu

diren arren, proiektuak aurrera jarraitu du, eta Steve Walwyn gitarrista gaur egungo erreferenteetako bat da.



DR. FEELGOOD TALDEA GAUR EGUN

Joan Pau Cumellas, Paul San Martin eta Romain Gratalon: hiru musikari, tradizio bera

Azaroaren 21ean, 13:00etan, Etxaburueta kalean joko dute. Harmonikak, pianoak eta bateriak bat egingo dute bluesaren tradizioan oinarritutako emanaldian.

DeRobert & The Half-Truths: Nashvilleko soul eta funk gordina

Azaroaren 21ean, larunbatean, 19:00etan, DeRobert & The Half-Truths taldeak joko du Soraluzeko antzokian. Nashvillen (AEB) du egoitza taldeak, eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetako soul eta funk doinuak ditu oinarri. DeRobert Adams abeslaria eta Nick DeVan bateria-jotzaile eta ekoizlea dira proiektuaren ardatz nagusiak. Adamsen ahots indartsuak, gospelaren eraginak eta haize-instrumentuen presentziak nortasun berezia ematen diote taldeari.



DEROBERT & THE HALF-TRUTHS

Sweet Marta & The Blues Shakers: bluesaren tradizioa, zuzenean

Azaroaren 21ean, 22:00etan, Soraluzeko Gaztetxean joko dute. Sweet Marta harmonika-jotzaileak gidatutako taldeak Chicagoko eta Texasko blues klasikoa lantzen du.

IGANDEA, ROCK & ROLLAREN FESTA

The Ubangi Stomp: bluesa, boogie-woogiea eta rock & rolla

Azaroaren 22an, 12:30ean, Santana kalean ariko da Alacanteko taldea. Bluesa, boogie-woogiea eta rock & rolla uztartuko ditu, *Crits* disko berriko doinuekin.

La Perra Blanco: rockabillyaren indarra Plaza Zaharrean

Igandeko beste izen nagusietako bat La Perra Blanco izango da. Azaroaren 22an, 14:00etan, Plaza Zaharrean eskainiko du kontzertua.

Cadizetik datorren taldearen buru Alba Blanco gitarra-jotzaile, abeslari eta konpositorea da. Azken urteetan Europako hainbat agertokitan aritu da, eta egungo rock & rollaren eszenan lekua egin du. Rockabillya, rhythm & bluesa eta rock & roll klasikoa uztartzen ditu taldeak, Elvis Presley, Little Richard eta Carl Perkins bezalako artisten eraginarekin



LA PERRA BLANCO TALDEA, ALBA BLANCOREN GIDARITZAPEAN

Barrence Whitfield & MFC Chicken: amaiera indartsua

Jaialdiaren azken kontzertu nagusia Barrence Whitfield & MFC Chicken taldeak eskainiko du azaroaren 22an, igandean, 19:00etan, Soraluzeko antzokian. Barrence Whitfield estatubatuarrak berrogei urtetik gorako ibilbidea du, eta ahots leherkorragatik nahiz zuzeneko indartsuengatik da ezaguna. The Savages

taldearekin eta bakarka egindako lanen ondoren, MFC Chicken talde britainiarrarekin batera igoko da agertokira. Spencer Evoy saxofoi-jotzaileak gidatutako taldearekin aspaldiko harremana du, eta elkarrekin aritu izan dira grabazioetan eta nazioarteko biretan. Rhythm & bluesaren eta rock & rollaren doinuekin agurtuko dute aurtengo edizioa.



BARRENCE WHITFIELD & MFC CHICKEN TALDE BRITAINIARRA

HERRI OSOARENTZAKO JAIALDIA

Musikaz gain, askotariko kultur eta aisialdi jarduerak jasoko ditu Blues Hotsaken egitarauak. Azaroaren 16an, astelehenean, 19:00etan, *Frankenstein agurgarria* lanaren inguruko irakurle kluba egingo dute Kalebarren 8an; hilaren 18an, asteazkenean, berriz, Alan Parkerren *The Commitments* filma proiektatuko dute antzokian, 19:15ean.

Harmonika ikasteko aukera ere izango da. Azaroaren 20an, 17:00etan, gazteentzako hastapen ikastaroa eskainiko du Joan Pau Cumellasek Gaztelekuan, eta hilaren 21ean, 10:00etan, helduentzako saioa egingo du. Egun horretan bertan, 11:30ean, Musika Eskolako konboak emanaldia eskainiko du antzokian.

Igandean, Karakate-Irukurutzeta inguruko trikuharrietara irteera antolatuko dute, aurretik izena emanda. Horrez gain, argazki rallya, haurrentzako jarduerak eta pintxoak izango dira asteburuan. Bertsolaritzak ere izango du bere lekua, hainbat kontzertu bertsolariek aurkeztuko baitituzte.

Sarrerak eta informazioa: antzokiko kontzertuetarako sarrerak 15 euroan eskuratu ahal izango dira Iratxo dendan eta *www.blueshotsak.eus* webgunean.



PLANA bi

Azaroak 6

IKAST.	**DANTZA FLAMENKOAREN BIDEZKO AHALDUNTZEA**	17:30	EMAKUMEEN TOPALEKUA (ERMUA)
IKAST.	**ANTI BULLYING TAILERRA**	19:00	LOBIANO (ERMUA)
MUSIK	**RUPER ORDORIKA & MUGALARIS**	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
ZINEA	**ASIER ERRASTI EIBARKO FILM LABUR FESTIBALA**	19:30	COLISEO (EIBAR)
IKUSENTZ.	**BILBOKO MENDI FILM FESTIBALEKO FILMAK**	21:00	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
JAIA	**AIZU! OSTALARIEN FESTA**	23:00	MAALA (ELGOIBAR)
ANTZ.	**KANDIDA**	20:00	ANTZOKIA (SORAL.)
GREBA	**ESS. A11KO GREBA-ASANBLADA**	18:00	PLAZA (MENDARO)
ANTZ.	**KANDIDA**	20:00	ANTZOKIA (SORAL.)
BILK.	**ERNAIREN ELKARGUNEA DEBA-ITZIAR**	19:00	BURUGORRI (ITZIAR)
IKUSK.	**'AA AITA' JON PLAZAOLA**	18:30 20:30	KULTUR ELKARTEA (DEBA)
BERTS.	**BERTSO AFARIA**	21:30	GAZTETXEA (DEBA)

Azaroak 7

AZOKA	**ESKLEROSI ANIZKOITZAREN AZOKA**	13:00	MERKATU PLAZA (ERMUA)
ANTZER	**IKUSKIZUN IBILTARIA**	19:30	ORBE (ERMUA)
TOPAK.	**DANTZAN TOPAKETAK 2026**	09:30	MARKESKUA JAUREGIA (EIBAR)
IKASTAR.	**TWERK IKASTAROA. AHALDUNTZE ESKOLA**	10:00	TOLAREKUA (SORALUZE)
AZOKA	**MERKATU TXIKIA**	09:00	PLAZA (DEBA)
JAIA	**AIZU! OSTALARIEN FESTA**	23:00	MAALA (ELGOIBAR)

Azaroak 8

MUSIK	**USARTZA TXISTULARI TALDEA**	12:45	UNTZAGA (EIBAR)
MUSIK	**XABIER BADIOLA**	13:00	TRIKU (EIBAR)

Añanako Gatz Harana bisitatu zuten berbalagunek asteburuan



Berbetan programako hainbat berbalagun Añanako Gatz Haranean izan ziren joan zen asteburuan. Gidari baten laguntzaz haranaren sorrera eta historia ezagutu eta iturburuak, putzuak eta biltegiak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten. Bisitaren amaieran, gainera, oinak eta eskuak ur gazitan sartu zituzten instalazioetako spa delakoan. Zapatukoa ikasturteko lehenengo irteera izan zen; udaberri partean egingo dute bigarrena. Bitartean, berbalagunek, astero elkartzen jarraitzen dute, ordubetez euskara praktikatzeko. Izena edozein momentutan eman daiteke telefonoz deituta (943200918) edo mezua bidaliz (elkartea@etakitto.eus).



Ongietorriko partaideentzat eskulan-tailerra antolatu du ...eta kitto!-k

Ispilu-mandalak egin dituzte aste honetan Ongietorri egitasmoko partaideek ...eta kitto! Euskara Elkarteak eurentzat propio antolatutako tailerrean. Material gutxirekin eta pazientzia handiarekin eskulan ederrak egin zituzten ordu eta erdiko saioan. Euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko eta integraziorako programa da Ongietorri eta hainbat ekintza antolatzen dira ikasturtean zehar, batzuk familian egitekoak eta beste batzuk, aste honetakoa kasu, helduentzat bakarrik.





ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN ALDE, KALERA

Datozen orrietan etxebizitzaren gaiari helduko diogu. Azaroaren 11n egingo den greba orokorraren testuinguruan, gaiari loturiko erreportaje, elkarrizketa eta inkesta landu ditugu ...eta kitto!-n.

Greba, herriaren giltza etxebizitzaren ateak zabaltzeko

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Azken urteotan berotzen joan da etxebizitzaren inguruko egoera eta azkenean eztanda egin du. “Gaur egungo egoera jasanezinaren aurrean”, azaroaren 11n greba orokorra egiteko deialdia egin dute sindikatuek, “etxebizitza eskubidea bermatzea eta espekulazioari aurre egiteko”. Hego Euskal Herriko hiriburuetan, Tuteran eta Eibarren egingo dira mobilizazio nagusiak.

Euskal Herriko gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru) eta etxebizitza sindikatuek (Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista eta Etxebizitza Sindikatuen Sarea) greba orokorra deitu dute azaroaren 11n. "Etxebizitza-eskubidea bermatu eta espekulazioari ezetz esateko eguna izan dadila" bilatzen dute aipatutako eragileek, eta "langileon pobretzearen aurka eta soldatak igotzearen alde" mobilizatzera ere deitu dute.

Langileen egoera sozioekonomikoaren okertzea eta etxebizitza-krisia dira deialdiaren ardatz nagusiak. Deitzaileen esanetan, etxebizitza euskal langileria pobretzeko eta desberdintasun sozial, matxista zein arrazistetan sakontzeko arrazoi nagusietako bat bilakatu da. Osasungintza eta hezkuntza bezalaxe, etxebizitza bermatutako oinarrizko eskubidea izan beharko litzatekeela aldarrikatzen dute, eta hori lortzeko oztopo nagusia jarduera espekulatiboa dela salatu dute.

Hori dela eta, krisiari aurre egiteko egiturazko hiru neurri nagusi proposatu dituzte: espekulatzaileen jabetzak espropiatzea, espekulazio-jarduera guztiak debekatzea eta etxebizitza-parkea langileriaren benetako beharren arabera antolatzea. Halaber, urgentziazko urratsak exijitu dituzte, hala nola etxegabetze guztiak behin betiko etetea eta alokairu-prezioen jaitsiera orokorra ezartzea.

Patronala, instituzioak eta aurrekariak

Mobilizazio honek lan-baldintzen eta etxebizitza-eskubidearen arteko lotura zuzena nabarmentzen du. Duela zortzi hilabete 1.500 euroko gutxieneko soldata propio baten alde egindako greba orokorra du aurrekari hurbilenetako bat. Eragileen arabera, ezinbestekoa da lansariak igotzea eta bizitzaren kostuaren gorakadari mugak jartzea.

Norabide horretan, erantzukizun zuzena egotzi diete Confebask zein CEN patronalei, gutxieneko





Ezkerrean, Hego Euskal Herriko mobilizazioen kartela. Eskuinean, Arragueta kaleko etxebizitza bat. EKHI BELAR ERRASTI

soldata propioari uko egiteagatik, eta erakunde publikoei (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta udalak), negozio espekulatiboa babesten duten errentisten aldeko politikak mantentzeagatik.

Eibar, mobilizazio nagusien epizentroan

Azaroaren 11ko protestak indar erakustaldi zabala izatea helburu du, eta Euskal Herriko hainbat herri zein auzotan bultzatutako asanbladen bidez artikulatu da.

Hego Euskal Herrian manifestazio nagusiak deitu dituzte, eta Eibarrek protagonismo berezia hartuko du, hiriburuekin eta Tuterarekin batera mobilizazio nagusia hartuko duen udalerri bakarra izango baita.

Honako hauek izango dira azaroaren 11ko mobilizazio nagusien ordutegiak eta lekuak: Eibar, 12:00etan, Untzaga Plazan; Bilbo, 12:30ean, Arriaga Plazan; Gasteiz, 12:00etan, Bilbo Plazan; Donostia, 12:30ean, Pio XII.ena plazan; Iruñea, 12:30ean, Gazteluko Plazan; eta Tutera, 12:30ean, Foru Plazan.

Eibarren egingo den dialdiak Debabarreneko eta Debagoieneko eta inguruko herritarrak bildu nahi ditu "Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez!" lelopean, eskualdeko egoera jasanezina plazaratuko duen mobilizazioaren bidez.

Azaroaren 11ko greba orokorra etxebizitza-eskubidea bermatu eta espekulazioari ezetz esateko eguna izan dadila bilatzen dute sindikatuek



Debabailarako sindikatuen ordezkariak Untzaga plazan,

Etxebizitza eskubidearen alde, greba orokorrera

Testua eta argazkiak **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



Debabarrena eta Debagoiena batera mobilizatuko dira greba egunean etxebizitza eskubidearen alde. Eskualdeko goizeko mobilizazioa Eibarren egingo dute, 12:00etan, Untzaga plazatik abiatuta. Iluntzean, berriz, herri bakoitzean egingo dituzte mobilizazioak.

Deialdiaren atzean dauden arrazoiak eta aldarrikapenak gertutik ezagutzeko, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskualdeko sindikatuetako eta etxebizitza-eragileetako ordezkariekin hitz egin du. ELAko, LABeko eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistako ordezkariek etxebizitzaren arazoak eskualdean duen eragina, proposatzen dituzten neurriak eta greba egunetik espero dutena azaldu dituzte.

ELAk uste du erakunde publikoek urteetan bultzatutako politikak direla etxebizitza eskuratzeko zailtasunen atzean dauden arrazoietako bat. Sindikatuaren arabera, politika horiek «enpresa eraikitzaileei eta bankuei mesede» egin diete, eta etxebizitza negozio-iturri bihurtu dute errentistentzat eta inbertsio-funtsentzat. «Hamarkadetan zehar egin diren politikek porrot egin dute», adierazi dute.

ELAk nabarmendu du etxebizitza-eskubidea bermatzeko ezinbestekoa dela espekulazioarekin amaitzea. Horretarako, enpresei eta inbertsio-funtsei etxebizitzak erostea debekatzea proposatu du, baita funts putreen esku dauden etxebizitzak desjabetzea ere, alokairu sozialera bideratzeko. Denboraldiko alokairuak eta etxebizitza turistikoak zorrotz arautzea ere eskatu du.

Beste neurri batzuen artean, banku publikoa sortzea, etxebizitzara bideratutako aurrekontu publikoa handitzea eta alokairu sozialeko etxebizitza gehiago eraikitzea proposatu ditu sindikatuak. Horrez gain, EAEn dauden 40.000 etxebizitza huts mobilizatzea galdegin du, etxebizitza hutsen jabeei zerga handiagoak ezarriz.

Debabarreneko egoera

ELAk ohartarazi du etxebizitzaren krisiak eskualdean ere eragin handia duela. Eibar eta Deba tentsio handiko eremu izendatu izana jarri du horren adibidetzat. Kostaldean, gainera, etxebizitza turistikoen presentziak eta bigarren etxebizitzek alokairu arrunterako eskaintza murrizten dutela azaldu du. «Etxebizitzaren krisiak ez du hiriburuetan bakarrik eragiten; lurralde guztietan eragiten du, eta Debabarrenean ere bai», nabarmendu dute.

Greba egunetik mobilizazio handia espero du ELAk. Etxebizitza-politika aldatzea eta erakunde publikoei gaiari merezi duen garrantzia emateko eskatzea ditu helburu. Grebarekin bat egiteko zalantzak dituzten langileei ingurura begiratzeko eskatu die, ikus ditzaten gertuko zenbat lagunek dituzten etxebizitza eskuratzeko edo alokairua ordaintzeko arazoak ikus ditzaten. «Greba orokorra gizartea eraldatzeko tresnarik baliotsuena da», adierazi dute.

«Etxebizitzaren krisiak ez du hiriburuetan bakarrik eragiten; Debabarrenean ere gogor jotzen du»

Eneritz Aristondo eta Ainhitze Etxeberria, ELA sindikatua



Ainhitze Etxeberria eta Eneritz Aristondo, ELAko ordezkariak.



Sonia Larrañaga eta Maialen Bergara, LABeko ordezkariak.

«Etxebizitza eta soldata duinen aldeko aldarria borroka beraren bi aurpegi dira»

Sonia Larrañaga eta Maialen Bergara, LAB sindikatua

LABen iritziz, etxebizitza lehen mailako arazo soziala da, eta langileen pobretzean eragin zuzena du, soldata eta lan-baldintzekin batera. Sindikatuaren arabera, etxebizitza duinaren aldeko borroka ezin da bereizi langileen bizi-baldintzen eta soldata duinen aldeko borrokatik. «Etxebizitza eta soldata duinen aldeko aldarria borroka beraren bi aurpegi dira», azaldu du.

LABek uste du Euskal Herrian badirela etxebizitza-eskubidea bermatzeko beharrezko eskumenak, eta erakunde publikoei eskatu die errentisten eta espekulatzaileen aldeko politikak alde batera uzteko. Sindikatuaren esanetan, greba orokorra aukera bat da etxebizitzaren aldeko borroka indartzeko, maizterren eskubideak defendatzeko eta etxebizitzaren arloko gatazkei aurre egiteko.

Egitura-aldaketak eta neurri zehatzak

LABek Nafarroako eta EAEko gobernuei etxebizitza-larrialdiari aurre egiteko egiturazko neurriak hartzeko eskatu die. Patronalari ere soldaten erosahalmena bermatzeko eskatu dio, eta higiezinen sektoreko espekulazioa salatu du. Besteak beste, alokairu-kontratu mugagabeak, prezioak jaistea, etxegabetze guztiak geldiaraztea, funts putreen esku dauden etxebizitzak desjabetzea eta etxebizitza publikoen parkea handitzea proposatu ditu. Etxebizitzaren erabilera espekulatiboa debekatzea ere galdegin du.

Debabarreneko arazoak, gertutik

LABen arabera, etxebizitzaren eta soldaten inguruko kezka nabarmena da Debabarrenean ere. Horren erakusgarri, duela bi urtetik Debaldeako Etxebizitza Asanblada dauka martxan sindikatuak, eta gero eta kasu gehiago jasotzen ari da. Besteak beste, alokairu-kontratu irregularrak, errenten igoera handiak, etxegabetze-mehatxuak eta migratutako pertsonen aurkako diskriminazio-egoerak aipatu ditu.

Ekintza sindikala etxebizitzaren arloan

LABek duela bi urte ekin zion etxebizitzaren arloan ekintza sindikala garatzeari. Gaur egun, ehunka maizter ditu antolatuta, eta hainbat gatazkatan ari da lanean. Debaldeako asanbladaren jardunaz gain, beste herri batzuetan maizterrak antolatzeko eta haien eskubideak defendatzeko egindako lana ere nabarmendu du.

Greba egun arrakastatsua eta mobilizazio jendetsuak espero ditu LABek, lantokiak hustu eta kaleak betetzeko. Zalantzak dituzten langileei gogorarazi die etxebizitzaren eta soldata duinen auziek guztiei eragiten dietela, eta horiei aurre egiteko antolakuntza eta borroka behar direla.

Etxebizitzaren arazoa pobretze orokorraren testuinguruan kokatu du Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak. Eneko Carriónek eta Kristiña Fidalgok azaldu dutenez, oinarrizko produktuen garestitzeak, erregaien prezioaren igoerak eta lan-baldintzen okertzeak herritarren bizi-baldintzak okertzen dituzte, eta ondorioak nabarmendu dira, nola ez, etxebizitzaren arloan. Sindikatuaren arabera, Euskal Herrian egunean batez beste 3,6 etxegabetze gertatzen dira. Horrez gain, salatu dute familia ugari logela bakarrean bizi direla, pertsona arrazializatuek etxebizitza bilatzean diskriminazioa pairatzen dutela eta gazteen emantzipazio-adina gero eta gehiago atzeratzen ari dela. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egoera ere aipatu dute: baliabide ekonomikorik ez izateak erasotzailearekin bizitzen jarraitzera behartu ditzake.

Sindikatuak salatu du egoera horren beste aldean errentismoa eta espekulazioa daudela. Emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian 40.000 etxebizitza jabe handien esku daude, 100.000 etxebizitza hutsik daude eta 7.000 baino gehiago turismo-erabilerara bideratuta daude. «Batzuentzat negozio-iturri dena gehiengoarentzat pobretzeko eta miseriara kondenatzeko bidea da», azaldu dute grebaren arrazoi nagusia laburbiltzeko.

Etxebizitza-eskubidea bermatzeko neurriak

Etxebizitza oinarrizko eskubidea dela aldarrikatu dute, hezkuntza eta osasungintza bezala, herritarren egoera ekonomikoa edo lan-egoera edozein delarik ere bermatu beharrekoa. Horretarako, hiru aldaketa nagusi proposatu dituzte: espekulatzaileak desjabetzea, espekulazioa debekatzea eta etxebizitza langileen beharren arabera planifikatzea. Haien ustez, etxebizitzak gutxi batzuen eskuetan pilatzeak eta negozio bihurtzeak eragozten dute eskubide hori bermatzea.

Greba, antolakuntza indartzeko tresna

Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren ustez, greba orokorrak langile-klasearen interes komunen aldeko mugimendu zabal eta indartsua antolatzeko aukera eskaintzen du, matxismoaren, arrazakeriaren, faxismoaren eta ideia erreakzionarioen gorakadaren testuinguruan. Etxebizitzaren arazoa egiturazkoa dela nabarmendu dute. Haien esanetan, arazoa ez da alderdi politiko baten edo bestearen kudeaketarekin konponduko: sistema kapitalista errotik aldatu beharra dago.

«Etxebizitza langileon beharren arabera planifikatu behar da»

Eneko Carrión eta Kristiña Fidalgo, Etxebizitza Sindikatu Sozialista



Eneko Carrión eta Kristiña Fidalgo, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistako ordezkariak.

Eskubide garesti eta iheskorra

Etxebizitzarako eskubidea oinarrizko eskubide sozial eta ekonomikoa da, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikulua eta nazioarteko zein estatuko hainbat legeditan aitortua dagoena. Ostera, pertsona orok ez du bere eskubidea beteta ikusten. Interes ekonomikoak tarteko, etxebizitzak gehiago du merkatutik eskubidetik baino.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Azaroaren 11ko greba orokorraren atarian, etxebizitza eskuratzea eta garestitze orokorrari aurre egitea euskal gizartearen kezka nagusi bihurtu dira. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da Debabarreneko eta, bereziki, Eibarko egoera sakon aztertzea. Datu ofizialek erakusten dutenez, eskualdeak berezko ezaugarri konplexuak ditu: itxurazko prezio apalagoak salerosketan, alokairuaren garestitze handia eta atari publikoetatik at mugitzen den merkatu ezkutu zabala.

Eustaten 2024ko datuen arabera (hauek dira eman dituen azken datuak), Debabarrenak 28.274 etxebizitza biltzen ditu. Horietatik %83,7 (23.674 unitate) ohiko bizileku nagusiak dira, eta %16,2 (4.584 unitate) bestelako erabileretara bideratuta daude; hau da, hutsik daude, edo bigarren egoitza nahiz



oporretarako etxebizitza bezala erabiltzen dira.

Eskualdearen barruan bi errealitate oso desberdin bereizten dira: Batetik, herri industrialak ditugu. Horien artean, Eibarrek, eskualdeko buru den heinean, etxebizitza guztien ia erdia hartzen du (13.623 unitate). Horietatik %87 ohiko etxebizitzak dira (11.850), eta 1.763 ez dira ohiko bizileku gisa erabiltzen (%12,9). Ermuan (%91,1) eta Elgoibarren (%86,1) ere ohiko egoitzen tasa oso handia da.

Bigarrenik, kostaldeko egoera aztertu behar dugu. Deban eta Mutrikun askoz ere nabarmenagoa da erabilera nagusia ez duten etxebizitzen pisua. Deban, 3.126 etxebizitzetatik 782 (%25) ez dira ohiko bizilekuak; Mutrikun, berriz, 2.879 etxebizitzatik 699 (%24,3) dira bigarren egoitzak edo opor-etxeak.

Eta hirugarrenik, udalerri txikiagoei begiratu behar diegu. Soraluzen 2.044 etxebizitza daude (%82,1 ohikoak), Mendaron 967 (%79,8 ohikoak) eta Mallabian 548 (%79,9 ohikoak).

Parke publikoaren aldetik, babes-eskaintza oso mugatua da. Eusko Jaurlaritzaren 2025eko txostenak ohartarazten du EAE osoko 73 udalerritan baino ez dagoela udal-alokairuko parkerik (%



Eibarren eta Debabarrenean berezko ezaugarri konplexuak ditu etxebizitzak. EKHI BELAR ERRASTI

95,8ko okupazioarekin), eta epe laburrean ez dago eskaera sozialari erantzuteko adina sustapen berririk bideratuta.

Gipuzkoako prezio apalenak, baina eraikin zaharrak

Jabetza Erregistratzaileen Elkargoaren 2026ko bigarren hiruhilekoko datuek adierazten dute Debabarrena dela Gipuzkoako eta EAE osoko eremu merkeenetako bat salerosketari dagokionez. Eskualdeko etxebizitzen batez besteko prezio orokorra 170.269 euro da (2.216,12 euro/m2): erabilitako etxebizitzetan 170.820 eurokoa da batez bestekoa (2.219,80 euro/m2), eta berrietan 167.516 eurokoa (2.197,76 euro/m2). Gipuzkoan, berriz, batez besteko prezioa 327.974 eurokoa da (4.175,25 euro/m2) eta EAEn 291.412 eurokoa (3.616,39 euro/m2).

Gipuzkoako beste eskualde batzuei begiratzen badiegu, Donostialdea-Bidasoa Beherean 401.412 eurokoa da batez bestekoa (5.181,74 euro/m2), Urola Kostaldean 354.991 eurokoa (4.230,67 euro/m2), eta Debagoienean 180.808 eurokoa (2.188,96 euro/m2).

>>> Debabarreneko alokairu-kontratu kopurua ia bikoiztu egin da 2018tik 2026ra, 1.223 kontratutik 2.399ra

>>> Zortzi urtean hileko errenta %22,9 garestitu da, eta metro koadroko prezioa %25,3 igo da

Datu horiek tranpa txiki bat ezkutatzen dute: Debabarreneko salerosketa ia guztiak bigarren eskuko etxebizitzenak dira. Promozio berrien eskasia estruktura-la da, lurzoru urbanizagarriaren faltagatik eta erliebe malkartsuagatik. Gainera, Eibarko eraikinen adin handiak irisgarritasun-arazoak (igogailurik eza) eta energia-eraginkortasun eskasak eragiten ditu, eta erosketa merkeago bati birgaitze-kostu handiak gehitu behar zaizkio ezinbestean.

Alokairuaren eztanda

Erosketarako zailtasunen eta finantzaketa-baldintzen aurrean, alokairu-merkatua izan da ten-



Higiezinen agentzien erdiak adierazi du kudeatzen dituen etxebizitzen % 75 baino gehiago atarietan jarri gabe alokatzen direla. EKHI BELAR

>>> Higiezinen agentzien % 61,5ek beti edo ia beti eskaintzen dizkiete etxeak beren barne-zerrendetan daudenei, iragarkia jarri aurretik

>>> Etxebizitza eskuratzea egiturazko arazo larri bihurtu da Debabarreneko bizilagunentzat

tsio gehien pilatu duen eremua. Eusko Jaurlaritzaren gordailuko fidantzen arabera (AME / EMAL), Debabarreneko alokairu-kontratu kopurua ia bikoiztu egin da 2018tik 2026ra: 2018ko laugarren hiruhilekoan 1.223 kontratu zeuden erregistratuta, eta 2026ko lehen hiruhilekoan 2.399ra iritsi dira.

Eskariaren igoera horrek prezioen garestitze etengabea ekarri du. Zortzi urtean hileko errenta %22,9 garestitu da, eta metro koadroko prezioa %25,3 igo da. Udalerrika, Eibar da eskualdeko alokairuaren ardatz nagusia: eskualdeko kontratu guztien %47,84 biltzen ditu (1.376 kontratu), eta hileko batez bestekoa 639,8 eurokoa da (8,8 euro/m2), eskualdeko garaiena. Ondoren datoz Deba (664,5 euro/hilean; 8,5 euro/m2), Ermua (613,5 euro; 8,5 euro/m2), Elgoibar (602,9 euro; 7,8 euro/m2), Mutriku (560,9 euro; 7,5 euro/m2) eta Soraluze (549,8 euro; 7,7 euro/m2).

Agentzien eskaintza ezkutua

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2026ko irailean egindako ikerketak fenomeno argigarri bat erakusten du: alokairuko eskaintzaren zati handiena ez da inoiz iragartzen Idealista, Fotocasa edo Pisos.com bezalako atarietan. EAEko higiezinen agentzien erdiak adierazi du kudeatzen dituen etxebizitzen % 75 baino gehiago atarietan jarri gabe alokatzen direla.

Ikerketaren arabera, agentzien %61,5ek beti edo ia beti eskaintzen dizkiete etxeak beren barne-zerrendetan daudenei iragarki irekia

jarri aurretik (%7,7k maiz egiten du). Beraz, hamar agentzietatik zazpik bide itxia lehenesten dute. Horren arrazoiak barne-zerrendan eskari nahikoa izatea (%57,7k aipatua EAEn), eskaera-uholdeek sortzen duten saturazioa saihestea (%34,6) eta profil egokia azkar aurkitzea (%19,2) dira.

Aipatzekoa da, bestetik, EAEko higiezinen agentzien egitura txikia. Izan ere, agentzien erdiak urtean 10 etxebizitza baino gutxiago kudeatzen ditu, eta %38,5ek 10 eta 24 artean. Horrek esan nahi du agentzien %88,5 tamaina oso txikikoak direla, baina bezerosare oso fidelak dituztela.

Horren ondorioz, Eibarren pisu bat libre geratzen denean, bezerozerrenda propioen bidez esleitzen da zuzenean. Atarietan bilatzen ari den herritarrak eskaintzarik ez dagoela sentitzen du, merkatua ikusezin bilakatu baita.

Tentsio-eremuaren izendapena

Krisialdiari aurre egiteko, Eibar eta Ermua Bizitegi-Merkatuko Tentsio-Eremu izendatzeko izapideak egiten ari dira, 12/2023 Etxebizitzaren Legearen babesean.

Eibarren, Ikei enpresarekin egindako ikerketak erakutsi du baldintzak 1. barrutian (bi errolda-sektoretan) betetzen direla, alokairua azken bost urteetan % 20,3 igo baita. Jon Iraola Eibarko alkateak azpimarratu duenez, neurri horrek datu objektiboetan oinarrituta jarduteko aukera emango du, alokairuen mugak ezartzeko eta gazteei babesa emateko. Ermuak, bestalde, udalerri osoa izendatzea eskatu du.



Eibar eta Ermua Bizitegi-Merkatuko Tentsio-Eremu izendatzeko izapideak egiten ari dira. EKHI BELAR ERRASTI

Miguel de los Toyos Etxebizitza sailburuordeak gogorarazi du eskualdea ez dela arazo honetatik at bizi den irla bat, eta Bittor Sarasketa kaleko 19 zuzkidura-bizitokien proiektua berriz aktibatzeko konpromisoa berretsi du, eraikuntza-enpresarekin izandako lan-gatazkaren ondorioz geldituta egon ondoren.

Laburbilduz, Debabarreneko etxebizitza-merkatuak paradoxa nabarmen bat erakusten du: eskualdeak ez du jasaten kostaldeko hiriburuetako prezio absolutuen zama bera, baina orografia itxiak, eraikinen zaharkitzeak, alokairuaren kostu erlatibo handiak eta atarietatik kanpoko merkatu ezkutuak etxebizitza eskuratzea egiturazko arazo larri bihurtu dute bertako herritarrentzat.

GAZTEEN **EMANTZIPAZ** ZENBAKITAN

%78,4

25 urtetik beherako gazteek ***soldataren zati hori*** *bideratu behar dute* ***alokairua ordaintzera.***

535 urte

25 urtetik beherako gazte batek ***etxebizitza libre bat erosteko*** *beharko lukeen denbora.*

+1.00

Debabarrenean ***Gaztelagun laguntz jaso*** *duten gazteak 2019az geroztik.*

1.004

IOA



0

za

19

Eibarko Bittor Sarasketa kalean eraikitzen ari diren ***zuzkidura-bizitokiak.***

€

Batez besteko alokairua 2025-2026an.

%20,3

Alokairuaren igoera *Eibarko 1. barrutian.*

Emantzipatzea, gero eta urrutiago: «Bakarrik eta dirulaguntzarik gabe, ia ezinezkoa da»

...eta kitto!-k sare sozialetan zabaldutako inkestan parte hartu duten 122 lagunetatik 117k uste dute Debabarrenean batez besteko soldata batekin emantzipatzea oso zaila edo ia ezinezkoa dela. Etxebizitzen prezio altuak, soldaten eta alokairuen arteko desorekak eta lan-prekaritateak kezkatzen dituzte gehien; parte-hartzaileek neurri ausartagoak eskatu

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Gurasoen etxetik alde egin nahi, baina ezin. Soldata jaso, baina hilaren amaierara iristea zaila. Alokairua ordaindu, baina aurrezteko aukerarik ez. Etxebizitza duin bat eskuratzeko beste norbaitekin bizitzera joan behar izan. Horiek dira emantzipatu nahi duten gazte askoren eguneroko errealitatearen adibide batzuk. Emantzipazioa, askorentzat, gero eta urrutiago dago, eta ez norberaren borondate faltagatik, horretarako baldintza ekonomiko eta sozialik ez dagoelako baizik.

Horixe adierazten dute ...eta kitto!-k emantzipazioari eta etxebizitzari buruz sare sozialetan zabaldu duen inkestaren emaitzek. Guztira, 122 lagunek hartu dute parte. Inkestaren erantzunek agerian utzi dute etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta lan-baldintzak oso lotuta daudela. Izan ere, parte-hartzaileen arabera, soldatak eta etxebizitzen prezioak ez doaz erritmo berean, eta lan egiteak ez du bermatzen norberaren kabuz bizitzeko aukera izatea.

Inkestan parte hartu dutenen erdia (%50,8) emantzipatuta dago; gainerakoek, berriz, oraindik ez dute pausoa eman. 25 eta 29 urte bitartekoak dira parte-hartzaile gehienak (38), eta 30 eta 34 urte bitartekoak datoz ondoren (34). 21 eta 24 urte bitarteko 26 lagunek ere erantzun dute. Bizilekuari dagokionez, Eibarren bizi dira gehienak: 57k adierazi dute hori. Deban bizi diren 23 lagunek ere parte hartu dute, eta Mendaroko eta Ermuko hamarrek, hurrenez hurren.

Bakarrik ezin bizi

Gazteei emantzipatzeko dituzten oztopoei buruz galdetuta, soldaten eta etxebizitzen prezioen arteko desoreka aipatu dute gehienek: 99 lagunek. Etxebizitzen prezio altua da bigarren kezka nagusia, 94k adierazi baitute hori. Alokairuko etxebizitzen eskaintza urria (55) eta lan-prekaritatea (53) ere nabarmendu dituzte.

Izan ere, parte-hartzaileen arabera, arazoa ez da etxebizitza bat aurkitzea soilik, aurkitutakoari aurre egiteko dirua izatea ere bada. Debabarrenean batez besteko soldata batekin emantzipatzea posible ote den galdetuta, 64 lagunek ia ezinezkoa dela erantzun dute, eta beste 53k posible dela, baina zailtasun handiekin. Erraza dela erantzun duen bakarra izan da. Beste lau lagunek bestelako erantzunak eman dituzte. Hortaz, 122 parte-hartzaileetatik 117k



Etxebizitza bat salgai, Eibarren. IRATI ALVAREZ

INKESTAKO DATUAK:

> 122 lagunek parte hartu dute inkestan.

> 117ak (%95,9) uste dute batez besteko soldatarekin emantzipatzea oso zaila edo ia ezinezkoa dela.

> 56 (%45,9) gurasoekin edo familiarekin bizi dira

zailtasun handiak ikusten dituzte batez besteko soldata batekin emantzipatzeko.

Diru-sarreren arabera hilean alokairuan gehienez zenbat ordaindu ahal izango luketen ere galdetu zaie. Erantzun gehien jaso dituen tartea 300 eta 400 euro artekoa izan da (27 lagun); 26 lagunek 500 eta 600 euro artean ordaindu ahal izango luketela adierazi dute, eta beste 19k 400 eta 500 euro artean. Hamar lagunek, berriz, ez dakite zenbat ordaindu ahal izango luketen.


Parte-hartzaileei erantzun irekietan beren iritziak eta bizipenak azaltzeko aukera ere eman zaie. Bertan, bakarrik emantzipatzeko ezintasuna nabarmendu dute. Esaterako, gazte batek aitortu du gurasoen etxetik alde egin ahal izango duen ez jakiteak kezkatzen duela, eta beste pertsona batekin bizitzera joateko beharra izateak ere beldurra ematen diola. Beste batek, laburrago baina argi, honela adierazi du kezka: «Ez da normala gela bat alokatzeko 450 euro ordaindu behar izatea hilero».

Erreportaje osoa irakurtzeko, sartu etakitto.eus-en

>>>"Herrian dauden etxe hutsekin bertako gazte guztiak emantzipatu ahal izango ginateke"

>>>"Ez da normala gela bat alokatzeko 450 euro ordaindu behar izatea hilero"

Inkestako erantzun irekiak



ROSE AGUIRRE @YOSOY.ROSE

Kolorea, klasea eta boterea

Batzuetan apur bat hiltzen naiz, den-dena salgai jartzen duen gizarte honetan.

Nire etxebizitzari begiratzen diot, nire pribilegioari. Emakume migratua, ama eta gaztea, neskato txiki batekin pisu batean bizitzen. Nire pribilegiotik ikusten dut ez dela emakume guztion pribilegioa. Nire bidelagun migratuak ikusten ditut, berez definitzen gaituen azala.

Nire lagunak ezin du etxebizitza bat alokatzera joan bere bikotekiderik gabe. Eta, hala ere, haren bikotekidearen pribilegioa ere ez da nahikoa haren azalaren kolorea, jatorrizko herrialdea edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) edo pasaportea ezkutatzeko.

Etxebizitzaren krisiak emakume guztioi eragiten digu, eta, hori gorabehera, zapalduenak emakumeok izaten jarraitzen dugu. Haurrak kargura dituzten emakumeak. Genero-indarkeriaren biziraule asko. Agiri gabeak asko, gainean daramatzagun zauri fisiko eta psikologikoak babestuko dituen ezer gabe.

Bidelagun afrikarrak, marokoarrak, arabiarrak eta latinak ikusten ditut, begiratzen zaien modua. Azalaren koloreak axola baitu. Nahiz eta teorian geure burua arrazistatzat edo xenofobotzat ez hartu. Nolako mina ematen duen nire aberriak, nire jatorriak. Nolako mina ematen duen neure buruari begiratzen diodan ispiluak, emakume guztiok geure burua ikusten dugun ispiluak. Nolako mina ematen duen bestea izateak, arrotza izateak.

Nolako mina ematen duen haurrak kargura izateak eta erakundeek bazterrean uzteak edo, are okerrago, zure aurka indarkeria instituzionala baliatzeak. Nolako mina ematen duen atzerritarra izateak, aurrera egin nahi eta ezin izateak.

“Etxebizitzaren krisiak emakume guztioi eragiten digu, eta, hori gorabehera, zapalduenak emakumeok izaten jarraitzen dugu”

Inor ez da bere aberritik irteten nahi duelako. Aberria uzten da bertan bizitzen jarraitu ezin delako.

Babes dezagun «migratzaile ona»! Zer da «migratzaile ona» izatea? Eufemismoaren kontzeptu hori, sistemak aurrera egitea ezinezko egiten dizunean. Nola eskatu aurrera egin dezatela, bizirauteko gurpil zorotik atera ezin badira?

Izan ere, noski, izugarri gustatzen zaigu indarkeria behin eta berriz pairatzea, klase- eta arraza-auziak gurutzatzen gaituelako.

Bizitzeko leku bat izatea eskubide bat da, oinarrizko eskubide bat, eta inongo gizakik ez luke bizi beharko gaua edo eguna non igaro ez izateko beldurrez.

Arazoa ez dira ondoko lagunak, jabetzan etxebizitza bat edo bi dituztenak, putre-funts handiak baizik, giza eskubide batekin negozioa egiten dutenak.

PERTSONA BATEK ERE EZ LUKE ETXERIK GABE BIZI BEHAR.



Eibar Igarixanek bederatzi garaipen lortu ditu Neguko Ligako bigarren jardunaldian

E.B. Proba joan den zapatuan jokatu zen, Ipurua kiroldegian. Eskolarteko mailan, Ane Larrañaga hirugarren izan zen 50 metro librean eta bigarren 100 metro bizkar proban. Paul del Riok 100 metro bularreko proba irabazi zuen, eta Unax Conde bigarren izan zen distantzia horretan eta 50 m tximeletan. Maria Rodriguezek bigarren postua lortu zuen 100 m bularrean eta garaipena 200 m bularrean. Gorka Castrillok, berriz, 100 m bizkarrezkoan irabazi zuen eta bigarren izan zen 200 m librean.

Federatuetan, Itsaso Castrillo bigarren izan zen 400 m estiloetan. Iker Calvok bi garaipen lortu zituen, 50 m librean eta 100 m estiloetan; Paula Calvok ere bi proba irabazi zituen, 50 eta 200 m librean.

Asier Gomez hirugarren izan zen 100 m bularrean eta bigarren 200 m librean. Anes Abderrahamnek, berriz, garaipena lortu zuen 200 m librean eta 50 m tximeletan.

Jardunaldia 4x100 m libreko emakumezkoen erreleboarekin amaitu zen, eta eibartarrek laugarren postua eskuratu zuten.

Pello Berrizbeitia 7. izan zen Mallorcako UTMB-n

E.B. Mallorcako UTMB lasterketa lehiatu zen zapatuan, Els Tres Mils delakoa. Pello Berrizbeitia bertan izan zen eta oso lan ona egin zuen, zazpigarren postuan amaituz.
Lasterketak 56 kilometro eta 2.538 metroko desnibel positiboa izan zuen, eta Berrizbeitiak 5:37:33 behar izan zituen lasterketa amaitzeko.
Sare sozialen bitartez adierazi duenez, Berrizbeitia pozik da egindako lanarekin eta dagoeneko amaitutzat eman du denboraldia.

Ipuruako infantilak Euskalgymen irabazle

E.B. Ipurua gimnasia erritmikoko klubak Euskalgym txapelketan parte hartu zuen joan den asteburuan, Barakaldoko BEC-en. Klubeko hiru talde aritu ziren lehian, eta oinarrizko infantil taldeak garaipena lortu zuen.

Oinarrizko jubenilen taldeak bederatzigarren postuan amaitu zuen txapelketa, eta junior absolutuak hamazazpigarren postua eskuratu zuen.

Enara Montiel 6. izan zen Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketaren 3. jardunaldian

E.B. Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zuten larunbatean, urriak 31, Ziortza-Bolibarreko Iruzubieta bolatokian. Guztira, 82 bolarik hartu zuten parte, eta Asier Azkarate bergararra izan zen garaile.

Bigarren postua Gaizka Plaza markinarrak eskuratu zuen, eta hirugarrena, Olatz Arano markinarrak. Beste markinar bat izan zen laugarren, Jose Angel Fernandez hain zuzen ere, Mikel Almorza bergararra bosgarren eta Enara Montiel eibartarra seigarren.

Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketako laugarren jardunaldia bihar jokatuko da, azaroak 7, Bergaran.





Santboiana jipoitu ondoren, lidergoaren bila doa Eibar Rugby Taldea

E.B. Emakumezkoen Ohorezko B Mailako Eibar Rugby Taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen asteburuan UE Santboianaren aurka, 8-22. Partida hasi eta berehala, Aiora Ibar Aguadok entsegua lortu zuen eta Isis Touw herbeheretarrak transformazioa, eibartarrak aurreratuz. Santboianak markagailua orekatu zuen, baina lehen zatia amaitzear zela Touwek entsegua lortu zuen Eibarrentzat.

Bigarren zatian, Eibarrek beste martxa bat sartu zuen, garaipena lortu arte. Lide Erbina izan zen neurketako izar nagusietako bat, bi entsegurekin, 57. eta 65. minutuetan.

Garaipen honekin, Eibar sailkapenaren 2. postuan dago orain, Cumplutense Cisneros taldearengandik hiru puntura. Bihar, zapatua, Universitario Bilbao Rugbyren aurka jokatuko du 16:00etan.

31 mendizale Hartzaren Urratsen 4. etapan

E.B Deporreko 31 mendizalek Hartzaren Urratsak ibilbidearen laugarren etapa egin zuten zapatuan. Mendi batzordeak hurrengo txangoa azaroaren 14rako antolatu du. Beintza eta Labaien arteko ibilbidea egingo dute, eta kobazulo bat bisitatzea izango du berezitasun. Ibilbideak 9 kilometro izango ditu, 650 metroko igoera metatuarekin; punturik altuena 1.050 metrora egongo da.

Izena emateko, klubaren bulegora jo daiteke martitzen eta eguenetan, edo telefonoz zein posta elektronikoz egin daiteke.





Gipuzkoa Mugituz 2026 erronka martxan, herririk aktiboena zein den jakiteko

E.B. Ekimen honen leloa 'Gaur fisikoki trebatzea biharko narriadura prebenitzeko' da, eta egitasmoaren bidez, prebentzioak hauskortasunaren eta mendekotasunaren aurrean duen garrantzia nabarmendu nahi da. Izan ere, aktibo irautea funtsezkoa da zahartu ahala gaitasun funtzionala eta autonomia zaintzeko, Adinberrik bultzatutako Longevitateko Esku-hartze Goiztiarreko Eredu Integratuaren (PIE) esparruan.

Udalerri bakoitzak bere taldea du aplikazioan, eta herritarrek bertan erregistratutako kilometro aktiboak puntu bihurtuko dira herriarentzat. Erronkan parte hartzeko lau urrats nagusi jarraitu behar dira Wellk aplikazioaren bidez: Wellk app-a deskargatu, erregistratu, ' Gipuzkoa Mugituz 2026' hautatu, zure herria hautatu (udalerri bakoitza talde bat da) eta kilometroak erregistratu (eskuzko jarduerek ez dute balio).



Azken jardunaldian erabakiko da Gipuzkoako Xake Txapelketa Nagusia

E.B. Gipuzkoako Xake Txapelketa Nagusiaren laugarren txanda jokatu zuten zapatuan, Deporren egoitzan. Bertan, Jon Aranak garaipena lortu zuen Axel Rodriguezen aurka.

Laugarren jardunaldiaren ondoren, Ibon Muñoz dago sailkapenaren buruan, jokatutako lau partidak irabazita. Atzetik ditu Jon Arana, Iker García eta Paul Sierra. Txapelketa azken txandan erabakiko da: Muñozek puntu erdiarekin nahikoa izango du txapeldun izateko, baina Jon Aranaren aurka arituko da azken jardunaldian.

Xabier Beorleguik, berriz, Alfonso Gonzalezen aurka jokatuko du azken partida.

Azken txanda bihar, azaroak 7, izango da, Elgoibarko Zubi Ondo Xake Elkartearen egoitzan, 16:00etan hasita.

Eibar Eskubaloiko mutilak bikain ari dira

E.B. Eibar Eskubaloiko Lehen Nazionaleko gizonezkoen taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Tarazonan, 28-32 irabazita. Partida serioa jokatu zuten eibartarrek, eta une erabakigarrietan kontrolari eutsi zioten, etxetik kanpo lehiatzeko gaitasuna erakutsiz. Garaipen horrekin, eibartarrek sailkapeneko 2. postuan jarraitzen dute, 12 punturekin, Romo liderrarekin eta Anaitasuna 3. sailkatuarekin berdinduta.

Ohorezko Zilarrezko Mailako emakumezkoen taldea, berriz, garaipenetik gertu geratu zen Donostian. Bera Beraren aurka 23-22 galdu zuten, berdintasun handiko neurketan. Eibartarrek puntuak lortzeko aukerak izan zituzten, eta azken unera arte nortasuna eta lehiakortasuna erakutsi zituzten. Gauzak horrela, eibartarrek ez dute azken postuetatik alde egin, atzetik beste hiru talde dituen arren.

Bihar, talde biek jokatuko dute Ipuruan: neskek, 17:00etan, Kukullagaren aurka; eta mutilek, 19:15ean, Trapagaranen kontra.





Laura Mintegi izan da Harixa Emotenen bigarren saioan

S.H. Hilabeteko tertulia egin du aste honetan Harixa Emoten ekimenak eta azaroko gonbidatua Laura Mintegi izan da. "*Akabo*" izeneko eleberriarekin etorri da Eibarrera idazle nafarra eta euskarazko irakurletaldeko kideekin batera atera dio mamia 2025ean argitaratu zuen liburuari. Hilketa batetik abiatuta, maitasuna, bikote harremanak eta komunikazioa eta komunikazio eza hartu ditu hizpide azkeneko lan honetan.



Banatu dituzte Indalecio Ojanguren lehiaketako sariak

S.H. Barixakuan zabaldu zuten Indalecio Ojanguren XXXIX. argazki lehiaketaren erakusketa, Portalean, eta sari-banaketa ere bertan egin zuten. Azaroaren 29ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era. Edizio honetan saritutako argazkiekin batera, parte-hartzaileen selekzioa ere ikus daiteke. Gainera, Portaleko erakusketa aretoan bertan, Vanessa Ateca artista eibartarraren margolanak ikusi daitezke, *Material Emozionala* erakusketan.



Amesti tabernak irabazi du Eibarko Pintxo Lehiaketa

S.H. Amesti tabernaren *P&B Sinfonia* izenekoak irabazi du Pintxo Onenari Saria, Eibarko tabernarien arteko pintxo-lehiaketako epaimahaiak hala erabakita. Horrez gain, beste bi sari banatu dituzte: bertako produktuekin egindako pintxo onenaren saria Kultu tabernak eskuratu du, *Txibipintxu* proposamenarekin. Eta publikoaren saria, berriz, Gure Kaiola tabernaren *Udazkena Kaiolan* pintxoak jaso du. Sari-banaketa azaroaren 30ean egingo dute, San Andres Azokan.



‘Dastaketa eta Berbalagun espazioak’ Gazte Safarekin

S.H. Gazte Safa elkarteak *Dastaketa eta Berbalagun espazioak* ekimena antolatu du azaroaren 13rako, ostiralerako. Jarduera 17:00etan izango da, Portalean, hirugarren solairuan, eta euskal zein marokoar kultura gastronomiaren bidez ezagutzeko aukera eskainiko du. Saioan, parte-hartzaileek Marokoko kuskusa dastatu eta bi kulturen inguruan hitz egiteko aukera izango dute, mahai baten bueltan. Izena emateko, gaztesafa@gmail.com helbidera idatzi edo 631 330 218 telefono zenbakira deitu daiteke.



Etiopiako emakumeei buruzko argazki erakusketa

Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Eibarren prestatu duten egitaraua askotarikoa eta herritarrei zuzendua izango da, eta ekintzak hilabete osoan zehar luzatuko dira.

Programazioari hasiera emateko, Buna, Etiopiako emakumeen ahotsak eta erresilientziak izenburuko argazki erakusketa ipini dute ikusgai Andretxean, Egoaiziaren eskutik. Antolatzaileek azaldu dutenez, erakusketa hau "buna" kafearen errituarekin lotuta dago, emakume etiopiarren erresilientzia eta ahalduntze-prozesuan funtsezko pieza gisa. Hilaren 29ra arte egongo da ikusgai, goizez (09:00etatik 12:30era) eta arratsaldez (16:30etik 19:30era).



'Ardatzak' zirku-antzezkizuna taularatuko du Zirkozaurrek

S.H. Azaroaren 14an (zapatua) aurkeztuko du *Ardatzak* ikuskizuna Zirkozaurrek, 17:00etan Coliseon. Jorge Silvestre *Silver* da zuzendaria sorkuntza kolektibo honetako zuzendaria, eta antzezleak, berriz, Gorka Pereira eta Imanol Suso. Sarrerak 5 euro balio du.



Euskal dantzari eskainitako jardunaldia egingo da bihar

S.H. Dantzan elkarteak, Dantzaguneak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, *Dantzan Topaketak 2026* jardunaldia egingo dute bihar (zapatua, azaroak 7) Markeskua jauregian. Euskal dantzaren inguruko esperientziak, ikerketak eta erronkak partekatzeko elkartuko dira sektoreko hainbat lagun, 09:30etik 17:30era bitartean egingo den jardunaldian.

Bihar banatuko dituzte Film Laburren Jaialdiko sariak

S.H. XXVII. Eibarko Film Laburren Jaialdia astelehenaz geroztik martxa betean dago, eta Plano Cortok antolatutako lehiaketako lanik onenak ikusteko aukera eskaintzen dihardute egunero, dohainik, Coliseo antzokian. Azken proiekzioak gaurkoak izango dira (19:30etik aurrera), eta sari-banaketa eta saritutako lanen emanaldia, berriz, bihar (zapatua) egingo dira, Coliseon, ordu berean hasiko den ekitaldian.

Tokia eta ordutegia aldatuko dira azaroko zine-forum feministan





S.H. Azaroaren 20an (barixakua) izango da Pagatxa emakume elkartearen hurrengo zine-forum saioa, baina, hauteskunde kanpaina dela eta, hilabete honetako saioa ezin izango dute ohiko tokian, Portalean egin, eta ordua ere aldatu dute: Armeria Eskolako areto nagusian egingo dute saioa, 17:00etan hasita. Egun horretarako aukeratu duten filma *Una cuestión de género* (Zuz: Mimi Leder) da. Betiko moduan, sarrera doan eta librea izango da.

SUDOKUA

ERRAZAGOA

			3			2		7
					4	9		
5	2						1	6
	4	1		6				
			7		1			
				3		1	9	
1	5						6	8
		4	9					
7		2			6			






ZAILAGOA

						7	1	
6							9	5
	5		4	9			8	6
		4	7	5	8			
				6				
			9	4	3	5		
2	8			7	4		6	
7	4							2
	3	6						

LABIRINTOA





Azaroak 6 / Azaroak 12

BARIXAKUA 6

BARIXAKUAK JOLASIAN
17:00 Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzako doako egitasmoa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Urkizu.

FILM LABURREN JAIALDIA
19:30 XXVII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa. Doan. Coliseo.

EIBAR MODAN
20:00 Eibarko saltokietako eskaintza erakusteko desfilea. Eibarko Dendarien Elkarteak antolatuta. Sarrera doan. Errebal Plazia.



ZAPATUA 7

DANTZAN TOPAKETAK
09:30/17:30 Dantzan Topaketak 2026 jardunaldia. Dantzan elkarteak, Dantzaguneak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Markeskua.

FILM LABURREN JAIALDIA
19:30 Sari-banaketa ekitaldia: XXVII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia. Javier Agirresarobe Saria. Doan. Coliseo.



DOMEKA 8

MUSIKA
12:45 Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Untzaga.

MAGOSTO JAIA
12:00/15:00 Gaztaina erreak, pintxoak (txorizoa, lacon), enpanada, Ribeiro ardoa eta garagardoa. Os Galaicos taldeak girotuta. Antolatzailea: As Burgas Eibarko Galiziako Etxea. Urkizu (parkea).



MARTITZENA 10

TEK EIBAR
18:30 TEK Eibar energia-komunitateari buruzko informazioa emateko hitzaldia. Coliseo.

EGUAZTENA 11

MOBILIZAZIOAK
12:00 eta **18:00** Manifestazioa, "Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez!" lelopean. Untzagatik abiatuta.



EGUENA 12

HITZALDIA
10:00/12:00 "Inmigrazioa: zurrumurruak desmuntatzen", Eibarko Udaleko Kultura Aniztasunaren Arloaren eskutik. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).



TEK EIBAR
12:00 TEK Eibar energia-komunitateari buruzko informazioa emateko hitzaldia. Errebal eraikina.

ODOL-EMATEA
16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatu etxea.

HITZALDIA
19:00 "Migrazioa, islamofobia eta bizikidetza: Ceuta ere ahotan hartuta", Udazken Anitza egitasmoaren baitan antolatutako hitzaldia. Gaztelaniaz. Portalea.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 29ra arte
"BUNA: Etiopiako emakumeen ahotsak eta erresilientziak" argazki-erakusketa. Andretxea.
Azaroaren 29ra arte
Indalecio Ojanguren XXXIX. argazki lehiaketa. Saritutako argazkiak eta edizio honetako parte-hartzaileen selekzioa). Portalea (erakusketa aretoa).

Azaroaren 29ra
"Material Emozionala", Vanessa Atecaren pinturalana. Portalea (erakusketa aretoa).

Urtarrilaren 10era arte
Industria, berrikuntza eta mugimendua", G.A.C. enpresaren mendeurrenean.
Armagintzaren Museoa.

ZINEA **COLISEO**



"Sacamantecas"
THRILLER (J.B.O)

2026 / Espainia / 109'
Zuzendaria: David P. Sañudo
Aktoreak: Antonio de la Torre, Patricia López Arnaiz, Josean Bengoetxea
Historikoa. XIX. mendea

1 ARETOA
- **7an :** 17:00, 19:45, 22:30
- **8an :** 17:00

ANTZOKIA
- **8an :** 20:00
- **9an :** 19:30



"Nuda propiedad"
KOMEDIA. DRAMA. THRILLER

2026 / Espainia / 99'
Zuzendaria: Alberto Utrera
Aktoreak: Susana Abaitua, Maxi Iglesias, David Lorente
Komedia beltza


1 ARETOA
- **8an :** 20:00
- **9an :** 19:30



"Naza"
DOKUMENTALA (J.B.O)

2026 / Erresuma Batua / 80'
Zuzendariak: Yuval Abraham, Rachel Szor
Palestinar genozidioa

2 ARETOA
- **7an :** 19:45, 22:30
- **8an :** 17:00, 20:00
- **9an :** 19:30



"Gungo eta harpetar jokoak" (euskaraz)
ANIMAZIOA. ABENTURAK

2025 / Mexiko / 94'
Zuzendaria: Gabriel Riva Palacio Alatriste, Rodolfo Riva-Palacio Alatriste
Familia zinema. Historiaurrea

2 ARETOA
- **7an :** 17:00
- **8an :** 17:00

Ana
Dominguez Areta

4. URTEURRENA
2022/11/05



"Beti egongo zara gurekin. Maite zaitugu"

- ETXEKOAK -



Maritere Areta Lezeta

2026/11/01



Eskerrik asko une latz hauetan gure ondoan egon zareten guztioi.

MAITASUNEZ
- ETXEKOAK -

www.etakitto.eus
zorion-agurrak

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: FORMULARIO bat betetzea ETAKITTO.EUS webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezkete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **JON!** , atzo 5 urte bete zenduazen eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maiderren partez.



Zorionak **MARKEL**! Gaur 6 urte betetzen dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Haize, Julen eta Danelen partez.



Zorionak **IZAR** etxeko pitxurrinari! Eguaztenian 8 urte bete dozuz! Jarraitu distira egiten, Izartxo maittia! Etxekuen partez.



Zorionak **MAIA**! Urrixan 5 urte bete zenduazen. Besarkada haundixa famelixaren partez eta muxu erraldoi bat Pol-en partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **MARKEL**! Atzo, azaroak 5, 7 urte bete zenduazen. Musu potolo bat!



Zorionak **MAREN**! Azaruaren 5ian 3 urtetxo bete dozuz. Zorionak etxeko guztion partez. Asko maite zaittugu! Urte askotarako!



Zorionak **MARKEL** (10 urte) eta **JUNE** (5 urte). Musu pilla bat aitxitxa, amama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak **MARTIN!** Azaruaren 9xan 11 urte! Famelixaren eta, batez be, Marina eta lehengusuen partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **JULEN**! Martitzenian bi urte egingo dittuzu! Beti irribarria ahuan dakan gure txikixa! Etxekuek asko maite zaittugu!





Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
2.1. Salgai

3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko

4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Neska bat logela bila dabil alokairuan hartzeko Eibarren edo Elgoibarren. 640540638.

4. LAN BILA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, lanaldi osoa eta asteburuak barne. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632292662.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa eta apal-betetzaile lanetarako ere. Esperientzia eta ziurtagiriarekin. 631462540.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. Esperientziarekin. 641969140.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa edo zerbitzari lanetarako ere. 607826589.
- Emakumea eskaintzen da, esperientziarekin, pertsona nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 614567818.
- Emakumea eskaintzen da, esperientziarekin, pertsona nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 612284265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaindu, zein garbiketa eta etxeko lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 641 78 12 29
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. Edozein ordu eta egunetan. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioa eta esperientziarekin. 641955434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Astelehenetik ostiralera goizez. 614603605.
- Emakumea eskaintzen da aste barruan garbiketa lanak egiteko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614464957.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetan orduka lan egiteko. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 624418937.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko, eta baita haurren zaintzarako ere. Aste barruan eta asteburuetan orduka edo interna moduan. Titulu soziosanitarioarekin. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko (gauez). Astelehenetik zapatura (goizez). 6506906729. Sandra.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lan puntalak egiteko, garbiketa lanetarako, eroskatak egiteko edo etxetik irten ezin direnei laguntzeko. Auto propioa daukat, ospitalera eramateko. 612223075.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Euskarazko eta ingelesezko C1 duen unibertsitate ikaslea naiz eta edozein lan egiteko prest nago. 688605585.
- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

5.3. Eskaerak

- Irakaslea behar da Batxilergo 1-eko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako klaseak etxean emateko. 636686040.
- Euskara irakaslea behar da DBH 3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. 65373 5874, 13:00etatik aurrera deitu.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Umeak eramateko City Mini markako aulkia salgai. 4 erroberaduna. Poltsa eramatekoa barne. 85 euro. 650113060.

Sentitu zaitez ume berriro.
Bueltan dira 10 Kia Egunak.

Azaroaren 5etik 16ra.



Movement that inspires

Gogoratzen zara txikia zinenean nola emozionatzen zinen oinetako berriekin euri putzuetan salto egitean? Orain berriz senti dezakezu sentsazio hori, 10 Kia Egunak bueltan dira-eta. Aprobetxatu azaroaren 5etik 16ra gehien gustatzen zaizun Kia estreinatzeko, eta sentitu zaitez berriro zapata berriak dituen ume bat bezala.
Ez itxaron gehiago eta zatoz gertuen duzun Kia kontzesionariora.

NAIA CAR
Apalategi, 1 EIBAR
943 70 70 33
gruponaiacar.com

WLTP isurketa konbinatuak (g/km): 122-128. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 5,4-5,7. Konsultatu promozioaren baldintzak eta betekizunak www.kia.com webgunean. Eskaintzak Penintsulako, Balearretako, Ceutako, Melillako eta Andorrako Kia kontzesionarioen sarean balio du.

Dentalona

30

URTE

AHO-OSASUNA ZAINTZEN

BETIKOAK

ESKERRIK ASKO

BISITA EZAZU
GURE WEBGUNEA

943 20 21 18

644 40 37 59

Blas Etxebarria
Kalea 4, Eibar

(Estaziño
kale ondoan)

